OINUTSIK

Hego haizearen ferekaren falta sumatzen dut. Iparraldekoak ia ilauna higitzeko adina indarrik ez du. Eta beste biek ez dute inoiz garrantzirik eduki. Ilargiak jada izarrak idealizatu ditu, ez baititu luzaroan ikusi, hodei ilara amaigabeen hobenez. Sarriago margotzen dira gorriz besteek isuritako negarrak, eta odolak aspaldian ezkutatu zuen gure eskuen kolorea. Bihotzeko zainak balira besarkatzen dute zuhaitz zein landareen sustraiek lurra. Nik, aitzitik, oin biluzien laztana nabarituko ote duen galdetzen diot nire buruari. Beharbada nire gorputzaren pisua bere gain sentitzeak babes eza sentiarazten dio. Eta ez ninduke harrituko. Guztiaren jabe aitortu gineneko unea gorrotoz gogoratuko du ziurrenik. Gu orain ur-jauzi bateko ur tantak bezain lokabe sentitzen gara, bihotza eta birikak naturaren arnasaz betetzerakoan. Baina kriseilu baten argi ahul eta iheskorra bezain azkar aiena daiteke. Haizeak sua putz batez itzal dezakeen moduan desager daiteke berezkoa den guztia. Neguan elur-lapatxen falta sumatzean, udaberrian izpilikuaren koloreak ez piztean. Beranduegi denean. Lur soil eta lehorrak bizia besarkatzeari uzten dionean. Orduan ezin izango dugu oinutsik ibili.

Irati Lizaso Lacalle